



Jakin filosofatzen

«Idealak behar ditugu, baina zanpatu ere egiten gaituzte»

Olatz Mitxelena Larreta

◊ Filosofia ikasketak egin zenituen... eta?

Ez nuen, noski, erantzun borobilik topatu; galderak fintzen lagundu dit. Itzaltzen ez den halako hausnar-erreka bat da niretzat filosofia; hankak sartzen ditut, tarteka, freskatzeko.

◊ Marina Garcés filosofoaren bi testu itzuli berritan (*Denbora bizigarri baterako*), irakaspenik?

Amaitugabetasunaren ideia: amaitu gabe daude mundua eta gizakia; beraz, egiteko daude: alegia, egiteko bat dugu.

◊ «Egin ez ditugun promesen seme-alabak gara».

Eta esan ez ditugun hitzen seme-alabak, eta bizi izan ez ditugun bizitzenak ere bai. Historiadun mundu puska batera jaiotzen gara, eta gauza pila bat jasotzen ditugu herentzian.

◊ Pentsatu behar omen dugu nola konprometitu besteekin denboran. Promes bat hemen eta orain?

Promesak egingo ditugula, hori izan daiteke bat: kritika egingo dugula, bestelako errealitate batzuk irudikatuko ditugula, horiek gauzatzeari ekingo diogula.

◊ Pentsatu behar dugu, ordea, zein promesi ere egin traizio. Proposamenik?

Zoriontasunaren promesari, beharbada.

◊ Txarra ez!

Zenbateraino laguntzen digu, bada, tarteka sentitzen dugun zoriontasuna ikusten? Ez ote dio itzal egiten? Idealak behar ditugu bizitzeko, baina zanpatu ere egiten gaituzte.

◊ Bitartean, beldurra azpiak jaten...

Ez dakit beldurra den, baina bai bizi dugula halako paralisi bat. Ikusten dugu larrialdi klimatikoa, etorkinak itsasoan itotzen, etxeko sofatik Gaza, eta sentsazioa da, noski, ezin dugula ezer egin. Promesak egiteko gai den animalia bat hezten ikasi behar dugu –Nietzsche–; hiztaren boterearen geografia hori deskubritu.

◊ Munduaren 'gerokotasuna' irabazterantz, urgentziatzko galdera bat?

Marinak berak aipatzen du La Boétiek egiten omen zuen hau: «Hau bizitzea al da?».

◊ Eta hankak tarteka freskatzeko beste pentsalariren bat?

Iñigo Martínez Peña, adibidez. Neurri batean, bat egiten du Garcésen begiradarekin: etsigarria da panorama, baina badago heldulekurik. Hutsunearekin lotzen du ezintasuna: ekitera eramaten gaituen hutsune emankor bat, dio.



Itziar Ugarte Irizar